

Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkeak industria, teknologia eta kultura uztartuko ditu

Felix Ibargutxi

El Diario Vasco, 2000-04-08: 22.

Martin Ugalde Kultur Parkea eraikitzeke lanei hasiera ofiziala eman zitzaizen atzo. Euskal kulturarekin zerikusia duten enpresa, erakunde eta elkarteak biltzeko asmotan egingo da parkea, eta Egunkaria, Gráficas Lizarra eta Zabaltzen-Euskal Kulturgintza dira sustatzaileak. Martin Ugaldek berak jarri zuen lehenengo harria.

(...)

Martin Ugaldek, berriz, honela eman zion amaiera jardunari: "Traun dezala Andoaingo euskarak Buruntzako harri-tontorrak adina". Mendi honen magalean dago orubea, Andoaindik Urnietara doan errepidearen ertzean.

Andoainera egindako "etorrerak" ere gogoratu zituen atzokoan Ugaldek. Batetik, 1940ko itzuli Frantzian zeuden soldadu alemanek goardia zibilen esku utzi zutenean; gero Laborde fabrikari hartu zuten.

Gero, 1944an itzuli zen berrion Andoaina, Afrikan soldaduskako hiru urteak eman ondoren. Hirugarren etorrera, atzo gogoratu zuena, Ameriketako izan zen, 23 urte geroago. Eta azkena, Franco hil berria zelarik, familia eta guzti.

Lehenengo harria jartzeko ekitaldi sinbolikoan gauza hauek sartu ziren kaxan: Ugaldere biografia bat, atzoko Egunkaria-ren ale bat eta proiektuaren txostena.